

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

MANDEKO proiektua sortu dugu ez bakarrik telebistako kontrolak pertsonalizatu ahal izateko, baizik eta sortzen dituzten arazoak konpontzeko ere. Hala nola, ohikoan mandoak kolore ilunekoak direnez diseinu aspergarriak izateaz gain, samurtasun handiarekin galtzen dira.

Termoplastikoa erabiliz, mandoetarako zorro moduko bat sortuz, aurrez diseinatutako eta pertsonalizatutako zorroak salduko genituzke. Gure zerbitzua, gehienbat instagram moduko sare sozialetatik aurkeztuko genuen nahiz eta fisikoki saldu. Orduan, gure zerbitzua lokal desberdinetan salduko genuen eta gure etekinen zati baten truke bertan egongo ziren aurretik egindako diseinuak. Dena dela, bezeroak pertsonalizatutako kontrol bat gurako balu gutako bat izango zen honen salmentaz arduratuko zena.